

## **Funtsezko baliabideak:**

Enpresa hau aurrera eraman dezagun zenbait baliabide fisiko kontuan hartu behar ditugu, hasteko, lanerako garajea izango dugu, Mikelan enpresaren ondoan pabelioi bat haurkitu dugu kondizi onetan eta pentsatu dugu aukera ezinhobea dela hori erostea, horrela Mikelanekin harreman estuago lortuko dugu eta elkarri laguntzeko ere errazagoa izango da. Garaje honen barruan, ofizina bat izango da, non eskura izango dugun gure produktuaren inguruko informazio guztia eta eskaerak ere bertan egin eta planifikatuko ditugunak, eta lan horrek guztiak, ordenagailu baten beharra eskatzen du, beraz, ordenagailu bat erosiko dugu. Eskaerak ere telefonoz deituta egin daitezke eta gure enpresaren telefono zenbakia 943 119953, baita edozein duda aldetzeko ere baliodu. Azkenik, diseinuak online egingo ditugu hortaz, edukiko dugun ordenagailuarekin nahikoa izango da.

Bestalde, baliabide intelektualak eta giza baliabideak ere kontuan hartuko ditugu gure enpresa aurrera eraman dezagun. Hasteko, gure enpresako lau sortzaileak, enpresa hau aurrera eramateko ikasketa desberdinak izan ditugu eta baira formakuntzak ere. Hasteko, lauetako batek publizitatea ikasi zuen, nola atera aurrera gure enpresa sare sozialen munduan, eta nola erakustaerazi gure produktua beste jendeari, beste batek aldiz ingeniari, honek lagunduko digu silaren egonkortasun egokia hirugarrenak desgaitasuna duten jendeekin lana egin du eta beraien eskaerak eta baldintzak oso ondo ezagutzen ditu, beraz badaki nola produktuak egin behar ditugun beraienzat.

Eta azkenak ekonomiako ikasketa eta formakuntza profesionalak ditu, beraz, gure enpresaren dirua berak kudeatuko du.

Gu enpresa txikia izanik, eta esperientzia gutxikoak, pertsona bat kontratatuko dugu, esperientzi nahikoa duena guri laguntzeko. Hasierako pare bat urteetan gure ondoan lanean harituko da gure zalantzak eta dudak erantzuteko, eta gure egunerokotasunena laguntza emateko, hau da, lana erraztuko digu guk erritmoa hartu harte. Eta gurekin egongo da uneoro gure enpresa eta produktua aurrera eramateko.

Gure finantza baliabideak, denon artean kontu korrante bat izango dugu, hau enpresarena izango da, eta bertan egingo ditugu diruarekin egin beharreko mugimendu guztiak. Ordainketak egiteko, bai online , gure prdoduktuaren web orrian bertan, baita enpresan edo dendan bertan egin daiteke, bai eskuz baita txartelaz ere, norberaren erosotasunaren arabera.